

# Abenduaren 21eko 115/1999 Foru Dekretua, telekomunikazioetako operadoreek udal zergak ordaintzeari buruzko azaroaren 10eko 5/1998 Foru Araua garatzen duena.

## AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Arau osoa jasotzen da bertan.

1. artikulua.....	1
2. artikulua.....	2
3. artikulua.....	3
XEDAPEN GEHIGARRIA.....	4
XEDAPEN IRAGANKORRA.....	4
XEDAPEN INDARGABETZAILEA.....	4
AMAIERAKO XEDAPENA.....	4

Telekomunikazioetako operadoreei dagozkien udal zergei buruzko araudia azaroaren 10eko 5/1998 Foru Arauaren bitartez onartu zen.

Foru arau horretan jasotakoaren arabera, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan izan ezik, telekomunikazioetako operadoreek urteko konpentsazio bat ordainduko dute udal mailako gainerako zerga eta prezio publikoen ordean. Udalerrin bakoitzean lortutako fakturazioaren sarrera gordinen 100eko 2koa izango da konpentsazioa.

Kompentsazio horren likidazioaren ondorioetarako, erregelamendu bidez garatuko da moduari nahiz epeei dagokienez, Foru Arauak 4. artikuluan 3 apartatuan jasotakoaren arabera.

Aipatu garapena eragotzi gabe, konpentsazioa kalkulatzeko oinarriaren elementuak zehaztu ere egin behar da, hau da, udalerrin bakoitzean lortutako fakturazioaren sarrera gordinak. Horixe da foru dekretu honen asmoa.

Gauzak horrela, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuaren proposamenez, Diputatu Kontseiluak eztabaidatu ondoren, gaurko bileran hauxe

## XEDATU DUT:

### 1. artikulua.

1. Diruzko konpentsazioa ordainduko diete udal bakoitzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari telekomunikazioetako operadoreek udal zergak ordaintzeari buruzko azaroaren 10eko 5/1998 Foru Arauak jasotako erregimen bereziari lotuta dauden telekomunikazioetako operadoreek. Urteko konpentsazioa izango da: operadore horiek udalerrin bakoitzean lortutako fakturazioaren sarrera gordinen 100eko 1,9a eta Gipuzkoan lortutakoen 100eko 0,1, hurrenez hurren.

2. Udalerrri bakoitzean eta Gipuzkoako lurralde historikoan lortutzat hartuko dira udalerrri horietako bakoitzeko abonatu edo erabiltzaileei emandako edozein zerbitzutan sortzen diren sarrerak, fakturazio tokia zein den kontuan hartu gabe. Aipatu ondorioetarako, hartzaileak ordaindu beharreko zerbitzuetan, zirkuitu alokatuetan eta antzeko zerbitzuetan, sarreraren lorpen tokia fakturazioa egiten zaion terminalaren kokalekua izango da.

Sarrerak zer udalerritan lortu diren zuzenean zehaztea ezinezkoa duten zerbitzuen sarrerak gainerako sarrera gordinen proportzio berean banatuko dira.

## **2. artikulua.**

1. Udalerrri bakoitzean eta Gipuzkoako lurralde historikoan lortutako fakturazioaren sarrera gordintzat hartuko dira Telekomunikazioetako operadoreek udal zergak ordaintzeari buruzko azaroaren 10eko 5/1998 Foru Arauak jasotako erregimen bereziari lotuta dauden telekomunikazioetako operadoreek zuzenean emandako telekomunikazio zerbitzuetatik datozen sarrerak.

2. Ez dira fakturazioaren sarrera gordintzat hartuko kontzeptu hauek direla eta lortutako sarrerak:

A) Nazioarteko trafiko merkantileko eragiketen sarrerak, halakotzat hauek hartuz:

a) Barrurako eta bitarteko zerbitzuak, Espainiako estatutik kanpo hasteagatik.

b) Kanporako zerbitzuak, estatu espainiarrean egoitza ez duten telekomunikazioetako beste operadore batzuei ordaindutako zenbatekoei dagokienez, atzerrian erabat egindako jarduera ekonomikoaren kontraprestazioa izateagatik.

B) Telekomunikazio zerbitzuen prestazioa kargatzen duten zeharkako zergak.

C) Telekomunikazio zerbitzuak ematearen ondorioz lortzen ez diren sarrerak, hala nola: ustiapen edo kapital subentzioak, telekomunikazioetako operadoreek beren ibilgeturako egindako lanak, foru arau edo lege jakin baten arabera egindako balantzeen erregularizazio edo egunerapeen ondorioz egindako aktibo egunerapenak, musu trukeko eskurapenak, kalte-galerengatik hirugarrenei exigitutako kalteordainak, instalazioak aldatzeagatik lortutako zenbatekoak, sarrera finantzarioak, publizitate sarrerak, haien telekomunikazio zerbitzuen erabiltzaileen ekipo eta azpiegituren diseinu, komertzializazio, instalazio eta mantenimendu sarrerak.

D) Ondarearen zati diren ondasun eta eskubideak inorenganatz lortutako zenbatekoak.

E) Telekomunikazioetako beste organismo eta operadore batzuei instalazioen erabilera eskubideak lagatuz lortutako zenbatekoak, baldin eta instalazio horien titularitatea telekomunikabideetako operadoreena bada, bai eta instalazio horien mantenimendutik eratorritako zenbatekoak ere.

3. Artikulu honen 1 apartatuan aipatutako sarrerei kopuru hauek gutxituko zaizkie:

- A) Deskontu eta hobarien zenbatekoak, bai eta zuzendu diren itzulketak ere.
- B) Akatsa dela medio oker fakturatu ondoren deuseztatu edo zuzendu diren partidak.
- C) Partida kobraezinak eta saldo kobragaitzak, baldin eta Sozietate Zergaren araudiari jarraiki gastu kenkaridunak badira.
- D) Telekomunikazioetako operadoreek kontzeptu hauek direla-eta ordaindutako zenbatekoak:
- Beste operadore batzuek telekomunikazioetako operadoreari emandako telekomunikazio zerbitzuak, baldin eta azken horrentzat telekomunikazio zerbitzuak emateko ezinbestekoak badira edo haren zerbitzuekin batera fakturatzeko badira.
  - Bestelako zerbitzuak, hirugarrenek telekomunikazioetako operadorearen sare eta zerbitzuen bitartez emandakoak badira eta haren zerbitzuekin batera fakturatzeko badira.

### **3. artikulua.**

1. Telekomunikazioetako operadoreek ordaindu beharreko urteko konpentsazioaren zenbatekoa kalkulatzeko, foru dekretu honetako 1. artikuluan jasotako portzentaiak dekretu bereko 2. artikuluan zehaztu eta operadore haiek zergaldi jakin batean lortutako sarrera gordinei aplikatuz ateratako emaitza hartuko da kontuan.

2. Telekomunikazioetako operadoreek hiruhileko aitorpen-likidazioak aurkeztu beharko dituzte zergaldiko behin betiko aitorpen-likidazioaren kontura.

3. Hiruhileko aitorpen bakoitzaren zenbatekoa kalkulatzeko, foru dekretu honetako 1. artikuluan jasotako portzentaiak aurreko ekitaldian telekomunikazioetako operadoreek sortutako sarrera gordinen 100eko 25ari aplikatuko zaizkio. Hiruhilaren azken hilabetean aurkeztu eta ordainduko dira aitorpen-likidazioak.

Hiruhileko likidazio bakoitzaren zenbatekoa aurreko parrafoaren arabera zehaztu ezin denean, jarduera aurreko urte natural osoan gauzatu ez delako edo jarduera hasi berria delako, operadoreak proposatutako estimazio batetik abiatuta lortuko da hiruhileko likidazio bakoitzaren zenbatekoa.

4. Behin betiko aitorpen-likidazioa dagokion urtearen ondorengo lehen hiruhilabete naturalean aurkeztuko da. Haren zenbatekoa zehazteko, foru dekretu honetako 1. artikuluan jasotako portzentaiak telekomunikazioetako operadoreek aurreko urtean sortutako fakturazioaren sarrera gordinen zenbateko osoari aplikatuko zaizkio. Zenbateko horren eta aurretik egindako horren konturako ordainketen arteko diferentzia ordainduko da.

Behin betiko likidaziotik operadoreak udal bati edo Gipuzkoako Foru Aldundiari behin betiko likidazioagatik dagokiona baino gehiago ordaindu badio, operadore horrek ondorengo hiruhilabeteetako aitorpen-likidazioetan egin beharreko ordainketekin konpentsatuko du soberakina.

5. Hiruhileko aitorten-likidazioak eta behin betiko aitorten likidazioa Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztuko dira Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak horretarako onartzen dituen ereduetan, besteak beste zorraren zenbateko osoa sartuz. Gainera, udalerrri bakoitzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren fakturazioari eta partaidetza kalkulari buruzko xehetasunak emango dituzte. Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak baimentzen duenean, diskete bidez edo sistema telematikoa aurkeztu ahal izango dira aitorten-likidazioak.

6. Foru Aldundiak konturako konpentsazioa eta behin betikoa ordainduko dizkio udalerrri bakoitzari.

### **XEDAPEN GEHIGARRIA.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatu, bildu, egiaztatu eta ikuskatuko ditu foru dekretu honetan araututako elementu guztiak.

### **XEDAPEN IRAGANKORRA.**

Azaroaren 10eko 5/1998 Foru Arauak, telekomunikazioetako operadoreek udal zergak ordaintzeari buruzkoak, xedapen iragankorrean aipatutako zerga zorren kenkaria egingo da foru dekretu hau indarrean jarri aurretik sortutako fakturazioaren sarrera gordinen aitorten-likidazioan. Aitorten-likidazio hori Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak onartutako eredura egokituko da, eta foru dekretu hau indarrean jartzen den hiruhilabete naturalari dagokion aitorten-likidazioarekin batera aurkeztuko da.

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA.**

Indarrrik gabe geratu dira foru dekretu honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Bereziki, indargabetuta geratu da otsailaren 14ko 9/1989 Foru Dekretua, Espainiako Konpainia Telefoniko Nazionalaren tributazioari buruzko irailaren 22ko 52/1987 Foru Dekretua zati batean garatzen duena.

### **AMAIERAKO XEDAPENA.**

Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatua baimentzen da foru dekretu hau garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.